



TREBAKUNTZA 2015-10: BERRIA/BESTE BAT (*Gol berria...)

OHARRA: *izartxo*z eta letra etzanez idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *Gol **berri** bat sartu du Euskal Selektzioak.
2. *Gutun **berri** bat iritsi zaigu argi-indar konpainiatik.
3. *Diru-laguntza **berri** bat eman dio Udalak.
4. *Eraso **berri** bat jasan du Etxegiko alkateak.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Berri hitzak honako esanahi hauek ditu:

- Erabili, hondatu edo urratu gabea: oinetako **berriak** nituen, zuk zapaldu arte.
- Orain-oraingoa, egin berria: ogi **berriaren** usaina maite dut.
- Aurreko zerbaiten ordezkoa: zuzendari **berria** izendatu dute.

Hala ere, badirudi beste adiera bat hasi dela zabaltzen. Gertakari batzuen zerrendan zerbait eransten dela adierazteko erabiltzen dugu, *beste bat* erabili beharrean. Adiera berri hori okerra eta tradizio gabea da.

Horren ondorioz, esapide oker eta gaizki ulertze ugari sortarazten du: **garaipen berri bat lortu, *gol berri bat sartu, *eraso berri bat jasan...* zerrenda luzea osa genezake. Bistan dago ez dagoela garaipen zaharrik, ez gol zaharrik, ezta eraso zaharrik ere, eta argi dago horietan guztietan *beste bat* erabili behar dugula: *beste garaipen bat, beste gol bat, beste eraso bat...*

Inoiz, biak izan daitezke zuzenak, baina ondo erreparatu esan nahi dugunari, okerrik ez egiteko.

Proposamen **berria** egin digute (*aurrekoa bertan behera utzi dute eta haren ordezkoko proposamena egin digute*).

Beste proposamen **bat** egin digute (*aurrekoaz gain, badugu beste proposamen bat mahai gainean*).

Beraz:

1. **Beste** gol **bat** sartu du Euskal Selektzioak.
2. **Beste** gutun **bat** iritsi zaigu argi-indar konpainiatik.
3. **Beste** diru-laguntza **bat** eman dio Udalak.
4. **Beste** eraso **bat** jasan du Etxegiko alkateak.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)
- Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Ibon)

Hurrengora arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99